



1. Haur Literaturaren Txokoa

Sortzen ari garen proposamen didaktikoz osatutako funts honetan, oraingoan, ikus-irakurketari leku berezia eskaini nahi diogu. Era berean, esan, proposamen berri hauek osatzen ari garen egitarauarekin lotzen ditugula; beraz, hilean behin liburu ugari izango ditugula sortzen ari garen egitarauarekin; irakurtzeko, kontatzeko eta ikusteko proposatzen ditugun liburu ilustratuekin, hain zuzen ere. Liburu klasiko eta sortu berriak, adin tarte desberdinetan ikusteko, kontatzeko eta irakurtzeko.

1. Yusuke Yonezu. *Bost sagar txiki*. Tarttalo, 2011
2. Ole Könnecke. *Antton eta hostoak*. Alberdania, 2008
3. [Pat Hutchins. Loreren ibilaldia. Pamiela-Kalandraka, 2011](#)

2. Egitasmoa martxan

Bukatu berria du Juan Karlos Alonsok Gurasoen Galdekizunaren azken txostena: azaroko zenbakian kaleratu genituen emaitzei dagozkien grafikoak. 2008an hasi ginen lan hau egiten eta uzta garaia iritsi zaigu. Datuek erakusten digute gure ikasleen etxeetan, arlo batzuetan, Bularretik Mintzora egitasmoak eragin oso positiboa izan duela; beste zenbait arloetan gurasoen jokaerak asko hobetu dira. Ondorioen ostean, hausnarketak kateatu behar dira eta gaurkoan, asko hobetu den atal bati helduko diogu, hain zuzen, [haur kantuak hurrei abesteari](#). Aurrerantzean lan honi ekingo diogu, atalez atal, lerroz lerro.

3. Hausnarketa gunea

Anne Landak ibilbide luzea egin du European soinu-jotzaile gisa. Egun, Musikenen (Euskal herriko Goi Mailako Musika Eskola) Pedagogia, Kultura eta Pentsamendua, eta Gorputz teknika sailean aritzen da lanean. Besteak beste, Alexander teknika aplikatzen du. Teknika hau Australiako aktore batek sortu zuen, gorputzaren tentsioek bere ahotsean eragin okerra zutela konturatzean. Landa teknika honetaz baliatzen da bere eskoletan eta erditzea prestatzeko lantegietan.

<http://tecnicaalexander.es>

<http://www.annelanda.com/>

4. Ongi pasatzeko!

Oraingoan, bi txotxongilo proposamenez osatuko dugu saila. Biak ala biak musika dute hizpide. Taun-Taun Teatro taldeko "Batuta" da lehena; tamalez, gaztelerazko [bideoa](#) bakarrik daukagu esku artean, baina gurean, euskaraz burutzen dituzte saioak bergatarrek. Bestalde Anne Landak Txotxongilo taldekoekin batera, "Elurrezko panpina" izeneko musika ikustaldia eskaintzen du, inoiz ikusteko modurik baduzue ez galdu aukera!